

2009KO H1N1 A GRIPE PANDEMIKOAREN TXERTOA

Noiz hasiko da txertoa hartzeko kanpaina?

Txertaketa kanpaina, CISNS Estatuaren Osasun Sistemako Lurraldearteko Kontseiluak erabaki duenaren arabera, azaroaren 16an hasiko da.

Nork hartu behar du txertoa, oraingoz?

Pandemiaren aurkako txertoa lehenatasunez biztanle talde hauetakoek hartu behar dutela iritzi dio CISNSek:

- **Haurdun dauden emakumeek**
- **Gizarte- eta osasun-langileek**
 - Osasun etxeetako langile guztiek, bai lehen mailako arretakoek bai ospitalekoek, publiko nahiz pribatu izan.
 - Hirugarren adinekoen egoitzetan eta gaixo kronikoak artatzeko etxeetan diharduten langileek, arriskuko pertsonekin etengabeko harremana badute.
- **Behar-beharrezko zerbitzu publikoetan dihardutenek**
 - Estatuaren segurtasun indar eta gorputzetakoek, estatuaren, erkidegoaren nahiz tokiko administrazioaren mendekoak izan.
 - Suhiltzaileek.
 - Herri babeseko zerbitzuetakoek.
 - Larrialdiko osasun zerbitzuetako telefonoetan dihardutenek.
 - Espetxeetako langileek eta epaileen aginduz giltzaperatzeko etxeetakoek.
- **6 hilabete baino gehiagokoek, egoera kliniko berezia dutenez, konplikazio arrisku handiagoa badaukate 2009ko H1N1 birus pandemikoaz infektatuz gero. Egoera kliniko horiek hauek dira:**
 - Bihotzeko eta odol hodietako gaixotasun kronikoak (hipertentsioa izan ezik).
 - Arnas gaixotasun kronikoak (bronkio eta biriketako displasia, fibrosi kistikoa eta asma ertain-larri iraunkorra barne).
 - Tratamendu farmakologikoa duen I motako eta II motako diabetes gozoa.
 - Giltzurrun gutxiegitasun ertain-larria.
 - Hemoglobinopatia eta anemia ertain-larriak.
 - Barerik eza.
 - Gibel gaixotasun kroniko aurreratua.
 - Gaixotasun neuromuskular larriak.
 - Immunoezabaketa duten pazienteak (GIBak infektatuta, edo botikek eraginda, edo transplantea egin zaienei sortutakoa barne).
 - Gizentasun erigarria (gorputz masaren indizea 40 edo gehiagokoa).
 - Azido azetilsalizilikoarekin tratamendu luzea hartzen ari diren 18 urte baino gutxiagokoak, Reye-ren sindromea jasateko arriskuagatik.



Gure herrialdean txertoa borondatez jartzen da, lehenatasunez gomendatzen den taldeetan ere bai, orain arteko txertatze kanpaina guztietan egin den bezalaxe.

2009KO H1N1 A GRIPE PANDEMIKOAREN TXERTOAK

Zergatik gomendatzen da txertatzea?

Osasun publikoaren ikuspegitik:

1. Konplikazio arrisku handiko biztanleriari txertoa jarrita kasuen larritasuna motelduko da (gutxiago ospitaleratuko dira).
2. Osasun-langileei txertoa jarrita horien arreta jasotzen duten pertsonak kutsatzeko aukera gutxiago egongo da.
3. Komunitateari behar-beharrezko zerbitzuak ematen dizkion txertoa jarrita sistemaren operatibotasuna osorik mantenduko dugu pandemiak irauten duen bitartean.

Zer osagai dauka txertoak?

Espanian (EMA) Botikaren Europar Agentziak onartutako prestakin hauek edukiko ditugu, biak ere seguruak eta eraginkorrak:

- Focetria® – (Novartis laborategiak)
- Pandemrix® – (Glaxo Smith Kline laborategiak)

(AEMPS) Botiken eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak informatzen duenez, prestakin horiek pandemia eragin duenaren antzeko A anduia (H1N1) daukate, eta aurkezpen horiek guztiek birus inaktibatua daukate, inoiz ere ez biziak.

Bai Focetria® bai Pandemrix® prestakinek gainera laguntzaile bat daramate, hau da, txertoaren immunitate erantzuna handitzen duen gai bat, eta horri esker txerto kantitate txikiagoa behar da behar adinako immunitatea lortzeko. Laguntzaile biak (MF59 Focetria® prestakinerako, eta ASO3 Pandemrix® prestakinerako) seguruak direla frogatu dute bakoitzak bere aplikazio esparruan.

Zein ipini behar dut?

- 6 hilabete baino gutxiagokoei ez zaie txertoa eman behar.
- 6 hilabete eta 17 urte bitartean, konplikazio arrisku handieneko taldeetako dosi bakarrek Focetria® emango zaie.
- Haurdun daudenentzat txerto berezia egongo da.
- 18 eta 60 urte bitarteko helduei lehentasuneko taldeetakoak badira, Pandemrix® emango zaie.
- 60 urte baino gehiagokoei, lehentasuneko taldeetakoak badira, Focetria® emango zaie, ahal dela.

Zalantzarik baduzu, galdetu zeure sendagileari.

Zenbat txerto dosi behar ditut?

Hasieran dosi bitan emateko pentsatu bazen ere, batetik bestera hiru aste tartea utzita, txertoa oso eraginkorra dela frogatu denez, kasurik gehienetan, dosi bakar nahikoa izango da. Galdetu zeure txertaketa zentroan.

Zein efektu sekundario eragiten du txertoak?

Orain arte agertu diren efektu sekundarioak urtaroko gripearen txertoarekin normalean izaten direnen antzekoak dira. Ohikoenak: mina, gorritasuna eta inokulazio puntuaren hantura izaten dira, eta gripe koadro arin baten antzeko sintomak, 1-2 egunetan tratamendurik gabe joaten direnak. Informazio gehiagorako, ikusi (AEMPS) Botiken eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren web orria www.agemed.es.

Urtaroko gripearen txertoarekin batera eman daiteke?

Urtarokorako ematen den txerto motaren arabera, baliteke batetik bestera gutxienez hiru aste itxarotea. Galdetu zeure txertaketa zentroan.

Non har dezaket txertoa?

Txertoa non ipin diezazuketen jakiteko jo ezazu Autonomia Erkidegoko A gripear buruzko informazio telefonoetara, hemen dituzu:

<http://www.informaciongripe.es/preguntas-y-respuestas-mas-frecuentes.html#ambitoI5>

<http://www.msc.es/servCiudadanos/alertas/telefonosCCAAgripeA.htm>

2009ko H1N1 gripe pandemikoaren aurkako txertoari buruzko edozein zalantza baduzu, galdetu zeure sendagileari.

Informazio gehiagorako, ikusi: www.informaciongripe.es

